



Lehiaren
Euskal Agintaritzza
Autoridad Vasca
de la Competencia

KOMUNIKABIDE DEIALDIA

Hainbat eremutako aditu batzuek etxebizitza turistikoko erregulazioaren gainean eztabaidatuko dute Donostian

Datorren irailaren 14an, Donostiako Miramar Jauregian eta UPV/EHUko Uda Ikastaroen ziklo barruan “Gaurkotasuneko gaiak Lehia Zuzenbidearen inguruan” jardunaldia egingo da. Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakaria den Alba Urresola Claverok zuzenduta, ikastaro honek gaur egun lehiaren defentsaren eremuko gai batzuk aztertuko ditu, etxebizitza turistikoko erregulazioa barne.

“Lankidetzza-ekonomia: etxebizitza turistikoen erregulazioari buruzko eztabaida” izenburuko mahai-inguruan honako hauek hartuko dute parte: Bartzelonako Udaleko Turismo Merkataritza eta Merkaturietako zinegotzia den Agustí Colom Cabau; Euskadiko Erabilera Turistikoko Etxebizitzaren Elkarteko Presidentea den Asier Pereda Benito; Meliá Bilbao Hoteleko zuzendaria den Rubén Rodríguez Seco eta Alba Urresola Clavero bera.

“Errukitasun programak kartelen aurkako borroka-tresna bezala” izango da eztabaidarako beste gai bat. Honek zehapen-prozeduretako errukitasun programen praktika aztertuko du, bai Europako mailan, bai estatuko edota autonomia-ergidekoetako mailan ere. Lehiaren Euskal Agintaritzako kide den Enara Venturini Álvarezek moderatuko du eta hauek hartuko dute parte: Cecilio Madero Villarejo, Europako Batzordearen Lehiako Zuzendaritza Nagusiaren zuzendari nagusi ondokoa; María Ortiz Aguilar, Espainiako Merkatu eta Lehia Batzordeko (CNMC) kontseilukidea; Juan Luis Crucelegui Garate, Lehiaren eta Kontsumitzaileen Politika Saileko gaitasunak indartzeko eta aholku-zerbitzuetako burua Nazio Batuetako Merkataritzaren eta Garapenaren inguruko Konferentzian (UNCTAD), eta Cani Fernández Vicién, Cuatrecasas abokatuen bulegoko bazkidea.

Pablo García Bringasek, Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateko irakasleak, eta Stella Solernou Sanzek, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Merkataritza-Zuzenbideko irakasleak, parte hartuko dute *“Datuen teknologia berrien eragina lehian eta merkatu librean”* izenburuko mahai inguruan. Joseba Andoni Bikandi Arana LEAren Ikerketa-zuzendariak moderatuko du mahai hau.

Halaber, Pedro María Azpiazu Uriartek, Ogasun eta Ekonomiako Sailburuak, eta Agustín Erkizia Olaizolak, Gipuzkoako Kanpuseko Errektoreordeak, egingo dute ikastaro honen inaugurazioa.